

NAHI DUGUN ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALERAKO PROPOSAMENAK

2015eko maiatzak

O- SARRERA

Maiatzaren 24an hauteskundeak izango dira, udal-letarako eta Nafarroako Parlamenturako. Litekeena da aro politiko berri bati ekitea, eta nahi dugu aro honek aldaketa politiko eta sozial sakona ekartzea.

Agiri honen lehen atalean jaso dugu ELAk Nafarroan helburu duen aldaketa politiko eta soziala zertan datzan. Bigarrenean, berriz, hurrengo gobernu forala osatzeko asmoa duten alderdiei ELAk eskatzen dizkien konpromiso konkrituak bildu ditugu.

I- ZEIN DA NAFARROAN BILATZEN DUGUN ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALA?

Gobernuan dagoen alderdiak, UPNk, PSN eta PPrekin batera, merezita galdu dute zuten kreditu guztia, hainbat eta hainbat gertakariaren ondorioz -CAN, dirua xahutzeko beste ezertarako izan ez diren inbertsioak, Osasuna, murrizketa sozialen politika-; hauek guztiek agerian utzi dituzte sistema honen ustelkeria eta sare klientelarrak.

Alabaina, eragile horiek izan duten irudi galera gorabehera, funtsezko kontu bat ezin dugu ahaztu: "erregimena" edo "corralito foral" delakoa ez dela soilik ordezkatu beharreko sigla politiko entente bat; aitzitik, sare konplexu, errota eta boteretsua da, zeinak praktika eta aktore oso desberdinak biltzen dituen. Ziurrenik praktikei dagokienez zati txiki bat besterik ez dugu ezagutu. Aktoreen artean, alderdiei beste multzo handi bat erantsi behar zaie: enpresak, patronalak, sindikatu jakin batzuk, fundazioak, komunikabideak eta erakunde erlijiosoa.

Horregatik, aldaketa aipatzen denean, erreferentziak finkatu beharko genituzke, baina botereko siglen txandakatzetik askoz harago. Hain errota dagoen sistema, aktore boteretsuek sostengatua, eraistea atzeratu ezineko lehentasuna da, baina baita izugarritzko errota bat ere, eta behar bada horri aurre egiteko beharrezko izango den bulkada oraingoz ez gara irudikatzeko gauza.

ELAk ezinbesteko jotzen du aldaketa delako horren esanahia eta garrantzia zehaztea. Uste dugu bideragarri izango bada (beharrezkoa den aldeko indar-erlazioaz gainera) lau baldintza behar direla: erregimenaren izaera eta praktikei buruzko diagnostiko partekatua; aldaketarako benetako programa zehaztea; beharrezko aliantzak aktibatzea eta mobilizazio soziala garatzea.

Kontu hau argitzea behar-beharrezkoa da, bate-tik norabide horretan doan lankidetzeta politiko, sindikal eta sozialaren oinarriak ezartzeko, eta bestetik, herritarren inplikazioa lortu eta gizartean babes handiagoa izateko.

ELAren iritziz, aldaketa politiko eta sozial delakoak hiru ondorio izan beharko lituzke:

- Egitura politiko eta instituzionala demokratizatzea, parte hartzea bultzatuaz eta klientelismoari amaiera emanez.
- Klase xeheen aldeko politika soziala; honek aurrekontu- eta zerga-politikak zeharo aldatzea eskatzen du.
- Nafarroako euskal errealitatearen aurkako jazarpen politika amaitzea (hezkuntza, komunikabideak, hizkuntza...).

Hau gauzatzearren premiazkoa da eduki programatikoak finkatzea, zeinek agerian utziko dituzten egungo erregimenaren eta ustez nahi den alternatibaren arteko desberdintasunak. Horregatik, agiri honetan gure ustez erabaki beharko liratekeen jardunbide nagusiak bildu ditugu, baita Nafarroan aldaketa politiko eta sozialari ekiteko proposamen konkrituak ere.

1. DEMOKRAZIA ETA PARTEHARTZEA VS. ERREGIMENA ETA KLIENTELISMOA

■ Erregimena eraistea, atzeratu ezineko urgentzia

Elite nafarrek (batik bat UPNk eta PSNk) autogobernuko tresnak kudeatzeko moduak botere eta sare klientelarrak osatutako sistema bat sorrarazi du, eta hau era berean politika antisozial eta neoliberal gordina sustatzeko baliatu da.

ELAk gogoratu nahi du sistema hau garatzen hasteko abiapuntua Foruaren Hobekuntzak izan zuen kudeaketa antidemokratikoa izan zela: Estatu-tuko lurralde bakarra izan zen non herritarrei kontsulta egitea eragotzi zen.

Interes enpresarial, ekonomiko eta sindikalen sare klientelarra ahalbidetzen duen egitura instituzionala eraistea geroratu ezineko lehentasuna izan beharko litzateke Gobernuaren ekintzan. Ez da sinesgarria Nafarroan aldaketa sozial eta politikoa aldarrikatzea sare hori desegin gabe.

Beharrezkoa da arkitektura juridikoa eta instituzioek osatutako armazoi zaharberitu eta eguneratzea, oinarritzko printzipio demokratikoak

bermatzeko, esaterako gardentasuna, berdintasuna, gizartearen parte hartzea...

Bermatu egin behar da nafar herritarren erabakitzeko eskubidea, beraien borondatea beste mugarik ez dezaten izan politika, gizarte edota lurralde auziei buruz hartutako erabakiek. Bestalde, ziurtatu beharra dago politika publikoak ez daudela eliteen zerbitzura, herritar guztien beharrezan mesederako baizik.

■ Klientelismoaren negozio galgarria

Nafarroako gobernuen ohiko praktika izan da "Planak" egitea, oso era desberdinetako proiektuak, zeinetan finantziarioa jasotzen den, zuzenean edo zeharka, kasuan kasu, erregimenaren kideko diren erakunde enpresarial, sindikal edo erlijiosoentzat.

Plan hauetarako dirutza publikoa jarri izan da, eta horrek erregimenari sendotasun izugarria eman dio. Dirua xahutzeaz gainera, plan hauek beste bi ezaugarri izan dituzte: Iragarritako helburuetara iristeko ezdeusak izatea eta bultzatuztenentzako etekina ematea.

Esaterako, **Moderna Plana** izenekoarekin, Herri-Administrazioa ordezkatu nahi izan dute, interes pribatuak ezkutuan kudeatze aldera. Hasieran iragarri zuten "funtzionarioen bizi arteko izaera eza-batzea" edota eztabaida fiskala Plan honetan kokatzeko nahiak ongi adierazten dute Modernaren zinezko helburuak zein diren. Saldu zituzten hobekuntzak (enplegu sorrera, I+G inbertsioa, aberastasuna gehitzea...) ez dira bete. Aitzitik, adierazle ugari okerrera egin du. Moderna Planaren argakia (UPN, PSN, CEN, UGT, CCOO, Nafarroako Unibertsitatea) da ziurrenik elkartu diren interesen adierazpiderik argigarrien eta osoenetakoa.

Beste egitasmo nagusietako bat, baliabide gehien jaso duena, **Nafarroa 2012 Plana** izan da. Porlanaren, eraikuntza enpresa handien eta espekulazioaren aldeko apustu hau dirua botatzea izan da, eta ez du eraginik lortu. 2008ko apirilean UPNk eta PSNk xedatu eta sinatu zuten plan honetan aurrerago sartu ziren, baita babes eman ere, CEN, UGT eta CCOO. 4.508,9 milioi euroko herrilanak aurreikusi ziren plan honetan.

ELAk salatu zuenez, inork (ez planaren sinatzaileek, ez gero babes eman ziotenek) ez du izandako emaitzen konturik eman. Ez dakigu benetan zenbat diru publiko xahutu den (baina argi dago hasieran aurreikusitakoa baino askoz ere gehiago izan dela), eta ez da argitzen egin dena zenbate-

raino den erabilgarri. Plan honen baitan egin zen Urantziako Zirkuitua, AHT edo Gendulaingo proiektua.

Etorkizunerako hipoteka honi gehi behar zaizkio itzaleko bidesariak (Nafarroako Ubidean eta Jaka zein Lizarrako autobideetan), bankarentzako diru publikoaren sarrera lotsagarriak direlako. Azken finean, azpiegitura hauek erabiltzearen truke urte askotarako kobratuko duten enpresen jabeak bankoak dira.

Politika hau ez da bat ere gardena, eta kostu sozial, ekonomiko eta ekologiko oso handia ekarri du. Gutxi batzuk aberasteko beste ezertarako ez da izan.

Bestalde, **Enplegu Planek** agerian utzi dute sasi-"elkarrizketa soziala"ren benetako asmoa: UGT eta CCOO sindikatuak erregimenean integratzea, CENek bezalaxe diru laguntza publiko handien truke, lan munduarekin lotutako sare klientelar zabalak finkatzeko, langileen prestakuntza, etxebizitza, lan osasuna edota immigrazioa medio. Gure esperientzia sindikalak erakutsi digunez, hiru erakundeok kontzertazio sistema ilun hau zurkaiztu dute, formula erraz baten bidez: babes politikoa eta bake soziala eskaini Gobernuari, erregalia eta diru laguntza publikoen truke.

Akordio hauek zenbateko kostua izan duten konturatzeko, aski da aurrekontuetan zer partida aurreikusi diren ikustea: "Enplegu plan"etara 1999tik hona 1.700 milioi euro bideratu dira. Arlo honetako akordioak ere opakoak dira eta beren asmoa ez dute inola ere gauzatu.

Ez egitekoen azken alea Elkarrizketa Sozialeko Kontseiluaren sorrera izan da, eta ekonomia suspertzeko beste akordio bat; honi esker datozen urteetan 500 milioi euro kudeatuko dira. ELAk salatu du hau UGT eta CCOOen erreskate finantzario bat besterik ez dela.

Gogoratu beharra dago Kontuen Ganberako hainbat txostenetan behin eta berriz berretsita geratu direla ELAk plan bakoitzari urte askotan egindako kritikak; alta, honek ez du eragotzi indarrean jarrai zezaten. Benetako eskandaluak ditugu hauek, baina inork ez du honen ardura politikorik bere gain hartzen.

2. ALDAKETA SOZIALA, LEHENTASUNA

Langabezia, prekarietatea eta pobretzea pairatzen ari diren pertsonak izan behar dira zinezko aldaketa politika baten ardatz. Ia 50.000 lagun dago lanik gabe, eta hauetako ia erdiak ez du langabezia-prestazio edo -subsidiarik jasotzen. Hau

gertatzen ari delarik, Nafarroak Espainia eta Frantziakoa baino per capita BPGd handiagoa du, baita Europar Batasuneko batz bestekoa baino hobea ere. Aberastasuna soberan dago nafar guztion ongizatea bermatzeko. Gurean bizi dugun pobrezia egoera gero eta handiagoa ez da, beraz, krisiaren eta langabeziaren ondorio "naturala", baizik errentaren banaketa injustuaren ondorio.

Aldaketarako proposamenak nafarren gehien-goak bere egin behar dituzte; izan ere, gehien-goak arbuatzen baititu murrizketak, hazten ari den desberdintasuna, klientelismoa eta ustelkeria. ELAk adierazi izan du kezkatuta dagoela ordezkari-tza instituzionala izanik aldaketa nahi duten alderdi politikoen programa ez dagoelako nahikoa definituta gai zentraletan, esaterako fiskalitatea edo aurrekontuak. Adibidez, erreforma fiskalaren inguruko azken debatea etsigarria izan da, besterik ez esatearren; funtsezko gai honetan oposizio alderdien proposamenek ez dute orain arteko errealitatearekiko alde nabarmenik islatzen. Zoritxarrez, hau EAeko zerga-politikaren kudeaketan ere ikusi izan dugu, hain zuzen alderdiotako batzuk agintean dauden lekuetan. Ez alternatibarik, ez pedagogiarik, ezta parte hartze sozialik ere.

Guk uste dugu fiskalitate justuago, handinahiago eta progresiboago bat ezarriz gero posible dela pobrezia amaiaraztea, prestazio sozialak gehitzea, zerbitzu publikoak garatu eta kalitatezko milaka enplegu sortzea.

ELAk eutsi egingo dio bere posizioari: politika sozialaren aldaketa ardura instituzionalak dituzten indar politiko guztien lehentasun izan behar da; lehenetsi egin behar dute enplegua, fiskalitatea eta gizarte-babesa, pobretzeari galga jartzeko.

3. KULTUR ANIZTASUNAREN, BIZIKIDETZAREN ETA MEMORIAREN NORMALIZAZIOA

a) Euskararen normalizazioa, gainditu beharreko gaia

ELAren iritziz, garai berri hau baliagarri izan behar litzateke Nafarroan euskararen eta euskal errealitatearen aurkako jazarpen politika amai dadin. Nafarroako Gobernuak nafar herritar askoren aurka egiten duen politikaren hainbat adibide dira indarrean den Euskararen Legea, bere araudiak ere ez betetzea, Euskalerrria Irratiari lizentzia behin eta berriz ukatu izana, testuliburuaren debekua, D ereduaren aurkako kanpaina, etab.

Euskararen aitorpen, normalizazio eta sustapena hurrengo gobernuen politikan jaso behar litzateke; batetik, Nafarroako euskal hiztunen errespetuagatik, eta bestetik, lurraldearen hizkuntz- eta kultur-ondarearen defentsa gisa.

Halaber, ikurrinaren moduko sinboloak debekatzeko, urtetan udal eta erakunde publiko ugaritan esekita izan delarik, asmo bat izan du, inposizio eta zigorren bidez herritar nafar askok partekatu eta bere sentitzen duten bandera bat desagerraraztea.

ELAk uste du politika iraingarri, itsu eta ardura-gabe hau bertan behera uztea heldu beharreko gai bat dela, justiziazkoa delako hizkuntz- eta kultur-eskubideak aitortzea, eta herritar nafar guztien arteko errespetu eta bizikidetzarako ekarpen bat litzatekeelako.

b) Bizikidetzaren oinarritzat memoriaren aitorpena eta erreparazioa hartzea

ELA kezkatuta dago egungo eta etorkizuneko bizikidetzarako oinarritzko kontsentsu batzuren gabezia dela eta. Hauetatik garrantzitsuena, noski, memoriaren eta biktimen, biktima guztien, auzia da. Gaurkoz ez dago adostasunik gertatu diren giza-eskubide guztien edo, bederen, gehien urraketa buruzko zerrenda ordenatuari dagokionez.

Bide luzea dugu oraindik (sindikatuarentzat urrats positiboa izan da indar polizialen eta eskuin muturraren biktimak aitortzeko lege berria) iraganari buruzko egia argitzeko, memoria zaintzeko eta biktima guztiei justizia egiteko, baita antzeko gehiegikeriarik etorkizunean ez dela berriro gertatuko bermatuko duten mekanismo juridiko, instituzional eta hezkuntzakoak ezartzeko ere. Horrenbestez, ELAk berriro salatu behar du Nafarroako Gobernuak ez duela konpromisorik bere gain hartu 1936ko kolpe militarrean hildako eta errepresaliatutako pertsonen memoria berreskuratzeari buruz. Ezin da onartu halako tragedia baten erreparazioa senideen elkarrean esku uztea, hauek etengabeko ahaleginean ari baitira familiako eta adiskideen hilobien bila.

4. MOBILIZAZIO SOZIALIK GABE EZ DA ALDAKETARIK IZANGO

Hausnarketa eta proposamen politikoak egitea ez dagokie bakarrik alderdiei eta botere ekonomikoari. Sindikalista garen aldetik gogoetak eta proposamenak plazaratzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, eta ordezkatzeko dugun klase sozialarentzako demokrazia eta parte hartzea

exijitzea; gure legitimazioa ongi egiaztatzen dugu. Bide horri jarraituko diogu, GURE erabateko autonomiatik abiatuta. Halaber, gure erantzukizuna delako egingo dugu, uste dugulako, baita politika progresistak egitea erabaki den instituzioetan ere, politika horiek gauzatzea ez dela posible izango kanpotik interpelaziorik ez badago, etengabe mobilizatuta dagoen gizarte baten tentsiorik sumatzen ez bada.

Gure herriaren bilakaera politikoa, estatukoa eta Europakoa bezalaxe, agerian uzten ari da botere ekonomiko eta finantzarioek zein muga estuak ezartzen dizkieten erakundeei. Botereok kartel gisa jokatzen dute, xede bakarra dutelarik, politika publikoak beren zerbitzura jartzea. Horregatik, osatzen diren gobernuen eta hautatzen diren parlamentuen kolore politikoa dena dela ere, behar-beharrezkoa da mobilizazio soziala indartzea. Herritarrek, oro har, eta langile-klaseak, zehatzago, nahi duten aldaketa sozial eta politikoarekin identifika ditzaketen erreferentzia kolektiboak behar dituzte, eta sistema instituzionala etengabe interpelatu, honek gehiengo sozialentzat pentsatutako politika egin dezan.

Mobilizazio hau erakunde nafarrei begira dago, baina baita estatuari ere. Pasa den Aberri Egunez esan genuen bezala, espainiar Gobernuak Nafarroa eta Euskal Herria soilik aintzat hartzen ditu Troikak erabakitako austeritate politikak ezartzeko. Horrela autogobernua erabat desitxuratzeko da, eta honek erdigunean kokatu behar du Nafarroako gehiengo sozialen eta klase xeheen zoria.

Aldaketa politiko eta sozialarentzako leitmotiv sinesgarri bakarra autogobernuaren eta klase herrikoien helburuek merezi duten politikaren aldeko jarrera da, eta horren gainean jarri behar dira aliantza sindikal, sozial eta politikoen oinarriak.

Alderdietatik harago doazen aliantzak sendotzeko gizarte antolatua ere apustu horretan inplikatu beharra dago. ELAk bere konpromisoa adierazten du bide hori hartzeko daudenekiko. Alternatiba eraikitzeko modu bakarra dago, agenda neoliberalak aplikatzeari uko egitea.

II- KONPROMISO ZEHATZAK

Horrenbestez, maiatzaren 24an izango diren Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak direla eta, ELAk dei egiten die alderdi politikoei agintera iritsiz gero egingo duten politika gidatzeko kon-

promiso batzuk har ditzaten. Alegia, hitz eman dezatela erabaki konkretu sail bat hartuko dutela, jendearen bizi-kalitatea, enplegua eta justizia soziala hobetze aldera. Ez ditugu arlo guztiak agortuko, baina lan-ildo aski zehatza marraztu nahiko genuke.

ELAk Nafarroako Gobernurako hauteskundeetan lehiatuko diren alderdiei honako konpromisoak hartzea proposatzen die:

1. ZERGA POLITIKA

- Iruzur fiskalaren jazarpena. Soldatak ez diren errenta guztiak gehienez 4 urteko epean ikuskatu. Honetarako behar den giza-baliabide kopurua kalkulatu eta epe zehatzetan planifikatu.
- Ikuskaritzaren lan-metodoak aldatu, iruzurrik larrietara bideratzeko. Ikerketa lehenetsi, egiaztatze hutsaren orde. Honetarako plan konkretu bat aurkeztu. Funtzio teknikoetan eta ikuskaritzan kontrol alderdikoa ekidin.
- Iruzurraren aurkako bulego bat sustatu, diziplina eta erakunde artekoa, zeinak ogasunen, polizia fiskalaren eta fiskaltzaren ekintza koordinatuko duen.
- PFEZaren erreforma: Errenta guztien zerga (baita kapitalarenak ere) gutxienik laneko errenten gainekoekin parekatu; galdutako progresibitatea berreskuratu (%56ko tasa marjinal maximoa barne); errenta irregularrentzako salbuespenak ezabatu, eta kenketarik erregresiboenak desagerrarazteko egutegi konkretua ezarri.
- Sozietateen gaineko Zergaren erreforma: %35eko tasa nominala finkatu; gutxieneko zerga efektibo eta berehalakoa %24an finkatu; kenketa fiskalak mailaka ezabatu.
- Informazioa eta parte hartze soziala: Ekitaldien arteko informazio funtsezko, xehetu eta alderatzeko modukoa eskaini, zerga bakoitzaren kudeaketako parametro nagusiei eta ikuskaritzaren lanari buruz; iruzur fiskalaren inguruko aldizkako ikerketak egin.

2. AURREKONTU-POLITIKA ETA POLITIKA PUBLIKOAK

- Aurrekontu-politika berton erabakitzea, espainiar Estatuan erabaki eta adosten diren defizit mugak onartu gabe. Azken urteetan Nafarroako Gobernuak estatuko aurrekontu-markoa onartu du, horrela bere eskumenak politikoki onartu ezineko moduan baztertu

dituelarik; honek eragin sozial larriak izan ditu. Esaterako, 2015ean ontzat eman dute BPGd-aren %0,7ko defizita duten aurrekontuak egitea, Rajoyren gobernuak erabakitako aurrekontu-egonkortasun exijentziei men eginez.

- Espainiar Gobernuak ezarri nahi duen murrizketarik ez onartu (osasungintza, hezkuntza, zerbitzu sozialak, pertsonala, etab.).
- AHTa gelditzea, azpiegitura honetarako dirua bideratzea baztertuta. Garapena lan faraonikoekin lotzen duen politika alde batera utzi behar da. Pertsonen eta naturaren zaintza lehenetsi behar dira.
- Politika publikoak pentsatu, egin, aplikatu, jarraipena egin eta ebaluatzerakoan ikuspuntu feminista aintzat hartu.

3. OSASUN ETA HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOA

- Osasungintza eta hezkuntzako gastu publikoan dagoen Europar Batasuneko batez besteko mailarekiko diferentziala ezabatu:
- Europar Batasuneko osasuneko gastu publikoa batez beste Nafarroako Gobernuarena baino %31,4 handiagoa da. Honek esan nahi du urtean 294,1 milioi euro erabiltzen dela arlo honetan.
- Europar Batasuneko hezkuntzako gastu publikoa batez beste Nafarroako Gobernuak jartzen duena baino %64,7 gehiago da. Honek esan nahi du urtero 414 milioi euro gutxiago bideratzen direla.

4. ESKUBIDE SOZIALAK

Honako eskubideak legeaz aitortu behar dira:

- Menpekotasun kasu guztien estaldura, sistema publiko, unibertsal eta doako baten bidez.
- Sare publikoan eskatzen diren 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntzako plaza guztiak eskaintzea.
- Alokairuko etxebizitza sozial bat izateko benetako aukera, eta etxebizitza hutsei penalizazio fiskal handia ezartzea.
- Aborto eskubidea osasungintza publikoak bermatzea.
- Lan-, famili- eta norbanako bizitza kontziliatzeko prestazio ekonomikoak duintzea.

- Gizarte-prestazioetan ezarritako murrizketa guztiak bertan behera uztea.
- Gizarte-prestazioak jasotzeko denbora-mugak ezabatzea.
- Beharrian hauek osatzeko baliabide ekonomiko berriak kalkulatu eta planifikatu.

5. ENPLEGU-POLITIKA PROPIOA

Osasungintza, hezkuntza edo gizarte-zerbitzuetako gastu publikoa gehitzeak eta prestazio sozialak jasotzeko aukerak sektoreotan enplegua asko haztea eragingo luke; enplegu horrek lanbaldintza duinak izan behar ditu, eta biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzeko balio du, batik bat sektorerik behartsuenei. Beraz, politika soziala eta zerga-politika errotik aldatzeak enplegu gehiago eta hobea dakar berarekin.

Gainera, Nafarroako Gobernuak honako konpromisoak hartu behar ditu:

- Lan-prekarietatearen jazarpena eta lan-segurtasun eta -osasunaren babesa sustatu, kontratazioan gertatzen den iruzurrari aurre eginez eta giza-bitartekoak zein ikuskaritza eta zigorekintza asko gehituz.
- Enpresei emandako kontratatze laguntzak ezabatu, ez baitute enplegurik sortzen.
- Enplegu-politika propioa garatu, eta ez onartzea prestakuntzaren edota lan-bitartekaritzaren inguruko erabakiak espainiar gobernuaren politiken menpeko izaterik.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren politikak goitik behera berrikusi. Enplegu-zerbitzu publikoak bultzatzea, eta alde batera uztea lan-bitartekaritzarako erakunde pribatuak finantzatzeko eredua.
- Enplegurako prestakuntza eredu hirupartekoa garatu, erabakiak talde bakoitzeko gehiengoz hartuko direlarik. Prestakuntzarako kuotak kudeatzea. Lanbide-heziketa arautuko ikastetxeen eginkizuna lehenestea, eta eragotzi funtsak sindikatuek edo patronalek (nahiz hauen fundazio eta erakundeek) emandako prestakuntzara bideratzea. Sistema honen bitartez bermatzea sektore batzutan eskatzen den akreditazio profesionala.

6. AZPIEGITURAK ETA INGURUMENA

Azpiegitura, lurralde-politika eta ingurumenari dagokionez egungo egoera jasangaitza da, ikus-puntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik. Erabakiak hartu behar dira iraunkortasun sozial eta ekologikoa iristeko:

- Fracking-a benetan galarazi.
- Energia-politikan erregai fosilekin zerikusia duten jardunbide guztiak geldiarazi eta soilik energia berriztagarri iraunkorrek babestu.
- Garraio publikoa hobetu biztanle guztiek kalitatezko eta modu oneko zerbitzua izan dezaten, garraio publikoa alternatibarik egokiena izan dadin.
- Garraio publikoan tarifa sozialak aplikatu: 16 urte bitartekoentzat doakoa, txartel familiarrak, langabeentzako bono sozialak, etab.
- Dauden errepideak hobetu, berririk egin gabe, eta mobilitatearekin lotutako beste politika batzuk garatu, lurzoru gehiago okupatzea azken aukera izan dadin.
- Errepideetako ordainsariak ezabatu.
- Hondakinen jatorriko bilketa selektiboan %80ra iristeko konpromisoa. Jatorriko bilketa selektiboa konbinatu konpostajearekin, balorizazio materialarekin eta ezabapen iraunkorrek.
- Balorizazio energetikoa eta errauste-plantak behin betiko baztertu. Orain baliatzen ez diren materialak birziklatzeko proiektuak bultzatu, horrela birziklapen tasa gehitu eta %100eraino iristeko.
- Elikadura-burujabetza sustatu.

7. EUSKARA

- Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan bermatu.
- Hizkuntz-politika berri bat ezarri, euskararen normalizazioa lortzeko. Politika honek integrala izan beharko luke, hauek barne: hezkuntza-sistema, administrazioaren euskalduntzea, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzea, euskarazko komunikabideentzako babesa, etab. Honek egungo politika errotik aldatzea esan nahi du.

8. DEMOKRAZIA AREAGOTZEA, GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREN PARTE HARTZEA

- Politika publikoak finkatzerakoan parte hartze sindikalerako benetako bideak eskaini. Eremu formalean berriaz errespetatu behar da erakunde bakoitzaren ordezkaritza maila.
- Genero-ikuspegia duten aurrekontu partehartzaileak.
- Erreferenduma parte hartzeko bide gisa erabili erabaki politikoak hartzerakoan, batik bat garrantzi handiena duten eta eztabaida sozialik biziena eragiten dutenetan.
- Arduradun politikoen hartuemanak (agenda) publikoak izatea.
- Agiri ofizialak eskuratzeko aukera bermatu. Informazio honek publikoaren eta erakunde sozialen eskura egon behar du.
- Bateriaezintasun erregimena zabaldu.

9. NAFARROAKO ERREGIMEN KLIENTELARRA DESEGIN

- Erabat berrikusi eredu klientelarra eta azken hamarkadetan diru publikoaren poderioz eraiki diren egiturak.
- Moderna Plana berehalakoan indargabetzea.
- Elkarriketa Soziala delakoarekin zerikusia duen guztia desagerraraztea, esaterako Elkarriketa Sozialeko Kontseilua.
- Enplegu Plana eta Azpiegitura Planak geldiaraztea.

10. ZORRAREN IKUSKARITZA

- Zor publikoaren herritar ikuskaritza bultza eta erraztu, eta ilegimitotzat jotzen den zatiaren ordaina atzeratu, berregituratu eta, dagokionean, ukatu. Zorraren ikuskaritza prozesu bat da zeinetan aztertzen den zorraren jatorria, zergatik sortu den, zertarako baliatu zen, noren mesedetan, gardentasuna, izan litezkeen irregulartasunak, etab. Prozesu sozial bat izan behar da, non administrazioek lagundu egiten duten beharrezko informazioa emanaz.
- Erakundeak burujabe direla baliatu zor ilegiti-
moak ez ordaintzea eragin dezaketen erabakiak hartzerakoan, hartzekodunen ardura nabarmenduz.

11. ARLO PUBLIKOKO LAN-BALDINTZAK

● **Negoiazio kolektiborako eskubidearen berreskurapena.** Alde bakarreko erabakiak ez hartzeko eta joko-arau demokratikoak aintzat hartzeko konpromisoa (gehiengo araberako akordioak, etab.). Negoiazio kolektiborako benetako eskubidea berreskuratzea eta Administrazioek indarrean diren akordioetan alde bakarreko erabakiz aldatu dituzten edukiak leheneratzea.

● **Enplegu publikoa sortu.** Pertsonalaren ordezkapena lehen egunetik; azken urteetan amortizatutako lanpostuak berreskuratu. Lanpostu estruktural eta baja begetatibo guztiekin Enplegu Publikoko Eskaintza deitu. Zerbitzu publiko guztietan dauden beharrak aztertu, pertsonal nahikoa ez duten arloak indartzeko. Zerbitzu publikoen pribatizazioa berehala geldiarazi.

● **Soldatak.** 2010etik hona galdu den erosteko ahalmena berreskuratu.

● **Azken urteetan galdutako lan-baldintzak berreskuratu.** Galdutako baldintza guztien berreskurapena (egutegiko jaiegunak, Hezkuntzako ratioak eta eskola-orduak, iruzurrezko kontratuak, gehiegizko bitarteko egoerak, etab.).

● **Lan-segurtasun eta -osasunaren hobekuntza.** Prebentzio arau guztiak betetzea lantoki publiko guztietan, eta herrilanean ere betearaztea, behar adina bitarteko jarriaz legea aintzat hartzen dela ziurtatzeko eta arauak urratzen dituzten enpresak zigortzeko. Eragotzi mutualitateek gaixotasun arrunteko baje kudeaketa eta kontrola beregana dezaten, eta egoera leheneratzea mutualitateei arlo honen ardura eman zaien kasuetan.

● **Lan- eta famili-bizitza kontziliatzeko neurriak.** Arlo honetan aurrera egiteko neurri konkretuak, zaintzaren erantzukidetasuna eta denboraren erabilera arrazionala sustatuz (ordutegi malguak, langileen eskubideak bermatuz...).

● **Azpikondatutako zerbitzuak.** Urratsak egin behar dira administrazioak zuzenean eskainitzan, aintzat hartuz egun diharduten langileek beren lanpostuan jarraitzeko eskubidea dutela. Dagozkion erabakiak hartu azpikondatutako langileen baldintzak (baita enpresa publikoetakoak eta foru-administrazioa partaide denetakoak ere) parekatzeko enplegatu publikoen egoerarekiko.